

» TELEGRAMA

Urriaren 21ean, 19:30etan, Iruñeko Katakarak-eko irakurle taldeak **Idea Vilariñoren** *Poesía completa* irakurtzera gonbidatzen zaitu *STOP* Urriaren 22an **Xilaba Bertsulari Xapelketaren hirugarren finalaurrekoa** Aiziritze-Gamue-Zohaztin, Herriko Gelan; 17:00etan *STOP* Urriaren 24an Donostiako Liburutegi Nagusian (Haur sailean), Liburutegiaren eguna kari, *Kontuz kantu* ipuin kontaketa izanen da, **Amaia Nekanek** eskainia akordeoiaren laguntzarekin; 18:00etan *STOP* Gasteizko Oihaneder Kafe Antzokian, urriaren 26an *Mairuelegorreta: iluntasunetik argitasunera* ikuskizuna eskainiko dute 19:00etan; **Mikel Ezkerro** zuzendaria mintzatuko da bere lanaz *STOP*

» KONTZERTUA

Zapore ona



Montse Auzmendi

Sarasa, Hosokawa eta Orff

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

DONOSTIAKO ORFEOIA

Zuzendariak: Jun Märkl / J. A. Sainz Alfaro.
Bakarlariak: Susanne Elmark sopranoa, Peter Schöne baritonoa, Carlos Mena kontratenorea.
Egitaraua: Sarasa, Hosokawa eta Orff-en lanak.
Lekua: Gasteizko Principal Antzokia.
Data: urriaren 3a.

Asmatu dute Euskadiko Orkestrakoek denboraldi honetako lehenengo saioarekin. Lortu dutena nahiko zaila da. Arrakasta seguruko obra bat eskaini eta honekin batera musika garaikidea sartzeari, berezitasun batekin: esango nuke ia-ia interesgarriagoak suertatu zirela obra berriak egitarauaren izarra baino. Sorpresa atsegina izan zen Xabier Sarasa (orkestraren tronpa bakarlarria) konpositorearen *Fanfarria* lana, erabateko estreinaldia. Metalentzako dago idatzia, eta bost minututan modu distiratsuz esploratzen ditu metalen aukerak, soinu-ehundura interesgarriak lortuz.

Eta Sarasaren lanak taxuz ireki bazuten kontzertua, bide beretik joan zen

hurrengo obra. Toshio Hosokawa musikari japoniarraren *Meditation. To the victims of Tsunami* benetako oparia izan zen entzuleentzat. Oso lan inpresionista da, poema sinfoniko modukoa, non tsunamiaren drama, hondamena eta bihozmina arnastu egiten diren. Orkestraren tratamendua fin eta sentsiblea da, eta joko tinbriko zoragarriak eskaintzen ditu konpositoreak. Horrez gain, nabaria zen Jun Märkl-ek konpositorearen lengoia sakon ezagutzen duela, interpretazioa biribiltzeko.

Halere, dudarik gabe, Principal Antzokia aldi honetan bete-beteta egoteko arrazoi pare bat zeuden: alde batetik, bigarren zatiko obra, Carl Orffen *Carmina Burana*, oso erakargarria, eta bestetik, obra honetan parte hartu zuen Donostiako Orfeoia. Konplikatu izan zen Principaleko antzetzotki txikian orkestra eta abesbatza kokatzea, baina besaulki-patitok lerro batzuk kendu zituzten eta Orfeoia erdia izan genuen saioan. Horrela salbatu zen zailtasuna. Emaizta ona izan zen, zalantzarik gabe, eta neurri batean bakarlarrien meritua izan zen. Oso lan ona egin zuen Peter Schöne baritonoak, adierazkor eta seguru abestuz. Carlos Mena kontratenore gasteiztarrek interpretazio zoragarria egin zuen *Olim lacus colueram* soloan, berak duen tinbre espeziala azalduz. Eta Susanne Elmark soprano daniarrak bordatu egin zituen bere pasarteak, bere ahots eta presentzia ederrekin. Märklen zuzendaritza oso egokia izan zen uneoro. Bikain. ■

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

